



**ARANTZAko UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
© 948 634 005  
☎ 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

## 2017KO APIRILAREN 4KO BILERAREN AKTA

**Organoa:** Udalbatza.  
**Batzarra:** Ohiko bilera.  
**Deialdia:** Lehenengoa.  
**Eguna:** 2017.04.04.  
**Ordua:** Arratsaldeko 19:00etan.  
**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

### **Bertaratuak:**

Alkatea: Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.  
Zinegotziak:  
Mentxu Peña Lizarazu and.  
Ander Almandoz Indakoetxea jn.  
Igor Ugalde Salazar jn.  
Juan M. Gonzalez Burguete jn.  
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.  
Iñigo Sarrias Zoco jn.

### **Bertaratu ez direnak:**

Inor ere ez.

### **Idazkaria:**

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

### **Aztergaiak:**

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Eskolan 2017an egin beharreko obrak.
- 3.-Angel Goñi Vergara: oihan probetxamendu eskaera.
- 4.-Gestel enpresaren internet-eri buruzko proposamena.
- 5.-Hirigintzako Plan berriari buruzko hitzarmena.
- 6.-"Guernica" Gernikara izeneko mozioa.
- 7.-NUKF:Garapenerako tokian tokiko 2017ko lankidetzeta fondorako atxikimendua.
- 8.-Alkatearen ebazpenak.
- 9.-Eskaerak eta galderak.

### **1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.**

2017ko martxoaren 3an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE, aldaketa honekin: 4. Puntuan esaldi hau kentzen da: Kontuan hartuz aurtan Nafarroa Oinez 2017 dela eta laguntza ematea erabaki dela.

### **2.-ESKOLAN 2017AN EGIN BEHARREKO OBRAK.**

Ikusirik 130/2017 Ebazpena, otsailaren 16koa, Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak emana, Haur Hezkuntzaren 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak eta Lehen Hizkuntza-DBHko ikastetxeak hobetu eta

birmoldatzeko obra proiektuak egiteko Nafarroako Foru Komunitateko udal eta kontzejuentzat laguntzak emateko.

Beharrezko diren lanen aurrekontua eta memoria ikusirik, Arantzako eskola Kontseiluarekin egon ondoren (argiteria LED sistemara aldatzea, kalefakzioaren moldaketa eta segurtasuna hobetzeko ).

Eskolako Kontseiluak egindako aldeko txostena ikusirik,  
Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Arantzako eskolan eta eskolarako beharrezkoak diren obrak onartzea.
- 2) Hezkuntza Departamentuari aipatutako memorian deskribatuta dauden obrak egiteko diru laguntza eskatzea.
- 3) Ebazpen hau Hezkuntza Departamentuari jakinaraztea behar den gainerako dokumentazioarekin.

### **3.-ANGEL GOÑI VERGARA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.**

Ikusirik Angel Goñi Vergara jaunak aurkeztutako eskaera, Atanborda alderdian, dauden pinu insignisen probetxamendua egiteko (matarrasa, 4. poligonoko 79.A lur zatian ).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Angel Goñi Vergara jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendu hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.
- 2) Eskaera Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentura bidaltzea.
- 3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

### **4.-GESTEL ENPRESAREN INTERNET-ERI BURUZKO PROPOSAMENA.**

Ikusirik Gestel enpresak aurkeztutako proposamena, internet zerbitzua hobeki lortzeko.

Ikusirik dauden aukerak.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Gestel enpresaren zerbitzua kontratatzea, bizitza bezala eta 30x1Mbps abiadurarekin.
- 2) Alkateari ahalmena ematea beharrezkoa den dokumentazioa sinatzeko.

### **5.-HIRIGINTZAKO PLAN BERRIARI BURUZKO HITZARMENA.**

Arantzako Udalak Udal Plan berria egiteko akordioa eta diru laguntza eskaera igorri zuen Nafarroako Gobernuari.

Ikusirik Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentutik igorritako hitzarmenaren zirriborroa, udalak plan berriarekin dituen xedeak betetzeko eskatuz, ondoren, onartu eta sinatzeko.

Ikusirik Udaleko arkitektoek zehaztutako xedeak eta helburuak.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Nafarroako Gobernura Udaleko arkitektoek igorritako xedeak eta Jarraipen Batzordearen kideak igortzea hitzarmena onartu eta sinatzeko.





**ARANTZAKO UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

## **6.-“GUERNICA” GERNIKARA IZENEKO MOZIOA.**

Ikusirik “Guernica” Gernikara izeneko mozioa:

“1937ko maiatzetik ekainera bitartean, Pablo Picasso margolari eta artistak “Guernica” margolana sortu zuen. Lan honek, egun batzuk lehenago, Gernikak Condor Legio naziak Francoren agindupean jasandako bonbardaketa eta sarraskia salatzen du, beraz, aurten 80 urte betetzen dira, bai bonbardaketatik, baita honen aurkako karraxi artistikoa sortu zenetik ere. Urteurren hau beste eskaera eta garraxi bat zabaltzeko ere une egokia ikusten dugu: “Guernica” margolana Gernikan kokatu dadila behin betikoz.

Margolana 1937an sortu zen eta Parisko erakusketa Unibertsalean kokatu zuten. Harrez geroztik mundu guztian ezaguna bilakatu da, giza eskubideen zapalkuntza, gerraren eta herritarren aurkako jazarpena ozenki salatzen duelako.

Aipatutako artelanak ez du zentzurik Gernika eta bere historiari lotua ez baldin ba dago, hura izan bait zen margolari ezaguna gertatuaren izugarrikeria salatzera eraman zuena. Horren jakitun, behin baino gehiagotan aldarrikatu izan da aipatutako margolana Madrilgo Reina Sofia Museoan egon ordez, Gernikan bertan egotea dela egokia.

Behin baino gehiagotan eskari hau luzatu arren, Madrilgo Gobernu ezberdinek, bereziki garraio eta mantentze arrazoi teknikoak aipatuz, “Guernica” bere etxera ekartzera ukatu egin izan dira. Gaur egun, garraio eta mantenurako beharrezkoak diren baldintza guztiak betetzeko arazorik ez dute instituzioek eta ez da sinesgarria egiten argudiategi hori mahai gaineratzea. Beste behin ere, Madrileko Gobernuak dituen interes ekonomiko zein politikoak daude “Guernica” Gernikara ez ekartzeko arrazoi nagusien artean.

Sufirimendu guztien aitortza egingo duen memoria historiko bat eraikitzea ezinbestekoa den honetan, beste behin ere, margolan honek, bonbardaketa jasan behar izan zuen Gernika herrian kokatua, bere indarra eta salaketaren sakontasuna biderkatu egiten duela aldarrikatu nahi dugu. Eta ezinbestean, “Guernica”-k Gernikan egon behar duela”.

Ondorioz, aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Udal honek, Gernikako herriaren aurka 1937an egindako sarraskian oinarritutako Picasso-ren “Guernica” margolanaren kokapenik egokiena Gernika dela adierazten du. Gertaera historikoa, artelana eta herria bera uztartzea funtsezkoa dela adierazten du Udal honek. Ondorioz, “Guernica” Gernikara ekartzeko eskaera formala luzatzen dio Espainiko Gobernuari eta Kultura Ministeritzari.

2) Udal honek bere egiten du Picassok margolanarekin mundu guztira zabaldu nahi izan zuen salaketa, alegia, herrien zein giza eskubideen aurkako zapalketa, gerra eta genozidioaren saleketarik ozenenarekin.

3) Udal honek, erabaki honen berri emango die, Nafarroako Gobernuari, Espainiako Gobernu eta Kultura Ministeritzari.

## **7.-NUKF:GARAPENERAKO TOKIAN TOKIKO 2017KO LANKIDETZA FONDORAKO ATXIKIMENDUA.**

Ikusirik Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak sortutako Garapenerako Nafarroako tokian tokiko Lankidetza Fondoan parte hartzeko gonbidapena, 2017ko proiektuetan.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Udal honek 100,00 euroko laguntza ematea aipatutako fondoarentzat.
- 2) Akordio hau Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari jakinaraztea.

#### **8.-ALKATEAREN EBAZPENAK.**

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du, 2017ko 38. ebazpenetik 45. ebazpena arte.

#### **9.- ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez dira egin.

**Gai zerrendatik kanpo eta, aho batez, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaiak eztabaidatu dira:**

#### **10.-JUAN M. ECHEVESTE VERGARA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.**

Ikusirik Juan M. Echeveste Vergara jaunak aurkeztutako eskaera, Meaka alderdian, dauden pinu insignisen probetxamendua egiteko (matarrasa, 5. poligonoko 280. lur zatian ).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Juan M. Echeveste Vergara jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendu hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.
- 2) Eskaera Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentura bidaltzea.
- 3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

#### **11.-M. JESUS ECHEVESTE VERGARA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.**

Ikusirik M. Jesus Echeveste Vergara andreak aurkeztutako eskaera, Artxamana alderdian, dauden pinu insignisen probetxamendua egiteko (matarrasa, 5. poligonoko 928. lur zatian ).

Ikusirik M. Jesus Echeveste Vergara andreak aurkeztutako eskaera, Meaka alderdian, dauden pinu insignisen probetxamendua egiteko (entresaka, 5. poligonoko 208. lur zatian ).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) M. Jesus Echeveste Vergara andreari eskatutako oihan probetxamendu eskaereei aldeko txostena ematea, probetxamendu hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.
- 2) Eskaerak Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentura bidaltzea.
- 3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.





## ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

### 12.- ALKATE KURDUEI BURUZKO MOZIOA.

2016ko uztailearen 15ean estatu-kolpe saioa egon zen Turkian Recep Erdogan presidentearen gobernuaren kontra. Harez gero, eta saioa hori aitzakiatzat hartuta, Turkiako gobernuak lehenagotik zetorren errepresioan eta giza eskubideen urraketan sakontzeari ekin zion.

Errepresioaren ondorioz 2016ko uztailetik hona, 100.000 bat langile publikok beren lana galdu dute, 700 inguru unibertsitate-irakasle egotzi dira, 1500 gizarte zibileko erakunde legez kanpo utzi dira eta hamarnaka batzuk komunikabide itxi dira. Halaber, ordezkari politikoak kartzelaratu egin dira, nagusiki, herri kurduaren ordezkariak. Ezin da ahaztu, bestalde, Turkiako armada Kurdistango lurretan egiten ari dituen operazio militarrek zeinetan herriak suntsitzeaz gain ehunka zibil dituen.

Bestetik, atzen hilabete hauetan zehar, 50tik gora herri kurduetan herritarrek demokratikoki aukeratutako alkateak dekretuz kargugabetu ditu Turkiako gobernuak inongo prozesu judizialik gabe. Horietako 39 kartzelan sartu dituzte. Erdonganen AKP alderdiko kideez ordeztu ditu Turkiako gobernuak, muzin eginez herritarrek demokratikoki adierazitako aukerari.

Oinarrizko giza eskubideak, askatasun demokratikoak eta adierazpen-askatasunak balio gutxiko baloreak dira gaur egun Turkian, bereziki, gobernuan dagoen AKP bezala pentsatzen ez duten herritarrentzat.

Horren guztiaren ondorioz, aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Salatzea azken urteotan, eta bereziki 2016ko uztailearen 15eko estatu-kolpe saioaren ondorioz, Turkiako gobernuak hartu duen jite autoritarioa, zeinen ondorioz herritarren oinarrizko giza eskubideak eta printzipio demokratikoak etengabe larriki urratzen ari baitira.

2) Bereziki larria iruditzen zaiola herritarrek demokratikoki hautatutako ordezkariak, alkateak kasu, gobernuak dekretuz kargugabetu izana.

3) Elkartasuna adieraztea alkate horiei eta arrazoi politiko soilengatik kargugabetu edo kartzelaraturako ordezkari politikoei.

4) Bat egitea joan den azaroaren 24an Europako Parlamentuak hartutako erabakiarekin, non Turkiaren adhesio-prozesua izoztea eskatzen baitzen, estatu horretan demokraziaren oinarriak jasatzen ari diren higadura arrazoitzat hartuta.

5) Eskatzea Turkiako gobernuari errepresioarekin buka dezala, oinarrizko askatasun demokratiko guztiak berrezar ditzala eta lehenera diezazkiekeela errepresioa sufritu duten herritar eta erakunde guztiei aurretik zituzten eskubide guztiak, lanpostura itzultzekoa barne.

6) Erabaki honen berri ematea Turkiako Errepublikak Madrilen duen enbaxadoreari.

### 13.-KATASTROKO ALDAKETARI BURUZ.

Ikusirik 2016 katastroko mantenimenduan egindako aldaketa (2016/1/33 zenbaki duena), hainbat lur zatiari ukituz bide publikoa behar bezala jasotzeko planoetan (6. Poligonoko 61,63,136,137,341).

Ikusirik ukitzen diren lurren jabeak sinatu dutela aldaketa.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako katastroko aldaketa onartzea.





**ARANTZAKO UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

- 2) Akordio hau Lur-Ondasunen eta Ondarearen gaineko Tributuen Zerbitzura igortzea.

Bertzerik gabe, gaueko 22:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,  
Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.



